



‘Busturialdeko Hitza’-ren lehen zenbakia, kalean

AURKEZPENA ▶ Atzo egin zuten
jaialdia Bermeon; han izango du
egoitza euskarazko egunkariak

ESKUALDEA ▶ 20 herriren berri
emango du; Bermeoko Udalarekin
hitzarmena sinatu berri dute ▶ 2

LEITZA ▶

Jeiki-ren
Gabonetako
kontzertua
bihar

21 Gabon-kanta
eskainiko dituzte ▶ 4

Oinkari dantza taldearen 30. urteurreneko jaialdia dela eta, lehenengo eta oraingo egoeraz solasean

VILLABONA ▶ Oinkari dantza taldeak 30 urte betetzen ditu
aurten, eta hori dela-eta jaialdia antolatu dute bertako kideek
asteburu honetarako. Hori horrela izanik, Villabonako dantza tal-
dearen nondik norakoak biltzen saiatu da HITZA; taldearen sorre-
ratik hasi eta gaur egunera arte, euskal dantzaren eta Oinkari
dantza taldearen egoeraz mintzatu da Hilario Ugalderekin eta
Maidier Izagirrerekin; argazkian, Oinkariko kideak Villabonako
plazan duela urte batzuk emanaldia eskaintzen. ▶ 6

OINKARI



30 DANITZA EMANALDIA

OINKARI dantza taldea (Villabona)
Dantza zuzendaria: Edo Murumendiaraz
Makela zuzendaria: Xanet Arceña

&

LEINUA dantza taldea (Hiriburu)
Dantza zuzendaria: Roger Gayhenetche
Makela zuzendaria: Elisabet Dubour

Abenduak 17 larunbata, gauko 22:30etan
Bilabonako Oieidena Kiroidegian
Bilabonako Oieidena Kiroidegian
Bilabonako Oieidena Kiroidegian

www.tolosaldeko-hitza.info

TOLOSALDEA ▶

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa irabazteko lanean

Eskualdeko pilotari ugari finalerara
sailkatu dira; Aurrera-Saiatz taldekoak
maila altua ari dira erakusten ▶ 7



Aurrera-Saiatz taldekoak, Anizeto
Lazkano entrenatzailearekin. n. u.

IBARRA ▶

Kirolariei eta kirol elkarteei omen ▶ 7

KOMUNIKABIDEAK ▶

'Busturialdeko Hitza'-ren 1. zenbakia gaur aterako da

Eskualdeko euskalgintzak, gizarte eragileek eta Bertako Hedabideek sortu dute, eta atzo egin zuten euskarazko egunkariaren aurkezpen-jaialdia, Bermeon

ENEKO JAUREGI

Busturialdeak ere badu *Hitza* egunkaria. Hain zuzen, gaur aterako dute 1. zenbakia; aurkezpen-jaialdia, atzo gauean egin zuten, Bermeon, frontoian, eta bertan propio banatu zituzten lehen ale batzuk. Jende ugari azaldu zen jaialdira: proiektuko sustatzaile eta bazkideak ez ezik, erakunde publikoetako ordezkariak, euskaltzaleak, gizarte eragileetako ki-deak...

Eskualdeko euskalgintzako elkarteak eta gizarte eragileak, eta Bertako Hedabideak (*Berrria*-ren Euskarazko Komunikazio Taldekoa) dira *Busturialdeko Hitza*-ren bazkideak: euskalgintzak enpresaren %40 du, gizarte eragileek %20 eta Bertakok %40. Eta oinarri hauekin sortu dute enpresa: «Euskaltzalea da, plurala eta orekatua, baterakoia, parte-hartzailea, independentea, eta konprometitua eta profesionala». Eskualdean «euskarazko komunikabideen sarea» osatzen joatea da helburua. Hala, lehendabizi, egunkaria sortu dute, eta «kalitatekoa» egin nahi dute, «erreferentzialtasuna lortzeko informazioan eta euskararen normalizazioan». *Hitza* ezagutzera emateko, urriaren 31n 0 zenbakia atera zuten (20.000 ale).

Bi egoitza dituzte (Bermeon eta Gernikan), *Hitza* astean sei aldiz banatuko dute, zortzi orrialdekoa da, izena eman behar da jasotzeko, eta oro har etxera banatuko dute. Eskualdeko 20 herrien berri emango du (Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Forua, Gernika, Ajangiz, Mendata, Arratzu, Ea, Elantxobe, Ibarangelu, Gautegiz-Arteaga, Kortezubi, Nabarniz, Ereño, Muxika, Errigoiti eta Morga).

43.700 biztanle bizi dira Busturialdean eta oso euskalduna da (%77). Horren arabera, «eta euskara oraindik normalizatua ez dagoela ere kontuan hartuta», 6.000-7.000 aleko tiradara heltzeko helburua jarri dute.

Bermeoko Udalarekin hitzarmena sinatu dute

Proiektuko sustatzaileak uda aurretik hasi ziren Busturialdeko udal ordezkariarekin bilerak

egiten, eta orain dela bi aste Bermeoko Udalak eta *Busturialdeko Hitza*-ren enpresak legezaldiko hitzarmena sinatu zuten. Bermeoko Udalak, hala, biztanleko urtean hiru euroko laguntza emango dio *Hitza*-ri (18.000 lagun bizi dira herri hartan); lokala ere utzi dio. *Hitza*-k segitzen du beste udalarekin harremanetan. Hain zuzen, duela bi aste egin zuten azkeneko bilera Gernikako Udalarekin; erantzunen zain daude.



Gernikarrak, atzo arratsaldean, *Busturialdeko Hitza*-ren lehenengo zenbakia leitzen. BUSTURIALDEKO HITZA

OIHANA CABELLO ▶ 'BUSTURIALDEKO HITZA'-REN ZUZENDARIA

«Hemen ere jendeak leituko du, bertako berri emango dugulako»

Oihana Cabello da *Busturialdeko Hitza*-ren zuzendaria. 26 urte dauzka eta Gernikakoa da. «Ilusioz» heldu dio erronkari.

Gustura hartu al duzu zuzendari postua? Erronka al da zeuretzat?

Bai, gustura eta ilusioz hartu dut postua. Izan ere, orain arte kazetari lanetan aritu izan naiz eta komunikabide bateko zuzendari izatea erronka berria da nire ibilbide profesionale-

an. Are gehiago neure eskualdeko egunkariaren zuzendari izanda.

Orain arte zein komunikabideetan ibili zara?

Euskaldunon Egunkaria-n eta Bizkaia Irratian egin nituen praktikak. Gerora, *Kalegorria* aldizkarian eta *Xirika* asteakirari ibili nintzen. Horrez gain, *Berrria*-rentzako ere zenbait lan egin izan dut.

Zazpigarren *Hitza* da Busturialdekoa...



BUSTURIALDEKO HITZA

BESTE 'HITZA'-K ▶

Zazpigarren *Hitza* da Busturialdekoa. Hauek dira beste seien datuak:

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Euskarazko lehen eskualde-egunkaria Tolosaldean sortu zen, 2001eko abenduaren 18an: *Tolosaldean Egunkaria*.

Egunkaria ibxi zutenean (2003ko otsailean), **TOLOSALDEKO HITZAK** hartu zuten *Tolosaldean Egunkaria*-ren lekua. 2004an Leitzaldera zabaldu zuten.

'Oarsoaldeko Hitza'. 2003ko ekainean sortu zuten.

'Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza'. 2003ko azaroran.

'Urola Kostako Hitza'. 2004ko otsailean.

'Goierriko Hitza'. 2004ko urrian.

'Irutxuloko Hitza'. 2005ko otsailean sortu zuten Donostiako euskarazko egunkaria. Hain zuzen, lehen hiriburu-egunkaria izan zen.

'HITZA' DENAK ▶

Bazkideak. Tokian tokiko—aldizkari—euskarazko elkarteak, gizarte eragileak (270 inguru dira, oraingoz) eta Bertako Hedabideak (*Berrria*-ren EKT enpresakoa).

50.000 ale pasako tirada. *Busturialdeko Hitza*-k bere helburua betetzen duenean, *Hitza* denen artean 50.000 ale pasako tirada izango dute. Izena eman behar da egunkaria jasotzeko.

101 herri, hiriburu bat. *Hitza* denen artean 101 herriez informatzen da eta hiriburu batez.

...eta beste hainbeste sortu behar dira oraindik. 2001ean Tolosaldeko egunkaria sortu zen eta proiektu honek bidea zabaldia duela esango nuke. Euskal Herriko eskualde guztiek euren *Hitza* izatea litzateke egokiena, ahal bada.

Zer helburu dituzue?

Euskararen normalizaziorako bide izatea, betiere kalitateko produktuak eginez, gurea, eskualdekoa; egunkaria dugu lehendabiziko fruitua.

Euskarazko egunkaria sortzeko beharra zegoen, beraz, Busturialdean.

Bai; hizkuntza aldetik zein komunikazio aldetik. Jendeak eskualdeko berri izango du egunkaria eta, gainera, euskaraz. Hemen ere leituko dute, ziur. ◀

KIROLA ▶

Gipuzkoako saskibaloari omen

Gipuzkoako jokalaritza talde batek Real Madrileko beteranoen aurka jokatuko du hilaren 22an Usabalen; Atletico SS Fagor-ekoak omenduko dituzte; bildutako dirua Tolosaldea Sahararekin elkartearantz da

IRATXE ETXEBESTE

Gipuzkoako saskibaloari omenaldia egingo diote hilaren 22an Usabal kirol eta aisialdi gunean. Izan ere, 1966-67 denboraldian Lehen Mailara igotzea lortu zuten Atletico SS Fagor taldeko jokalariek omenduko dituzten ekitaldia antolatu dute Sport Mundik, Gipuzkoa Basketek, Gipuzkoako Saskibalo Federazioak eta Tolosako Adiskideok kirol elkarteak hainbat erakunderen laguntzarekin.

Carlos Cuezva, Manu Moreno, Jose Miguel Martínez, Juan Mari Garcia, Monsalve, Segun Aspiazu, Enrique Laborde, Ascensio Guruceta, Santiago Zabaleta, Ion Basurco eta Procopio Gimeno saskibalo jokalariek omenduko dituzte kirol jaialdi horretan. Izan ere, omenaldiaz gain maila handiko saskibalo partidua ere izango da datorren ostegunean herrian.

20:30ean hasiko da Gipuzkoako saskibaloari omenaldia egiteko ekitaldia. Gipuzkoako jokalariek osatutako taldeak Real Madrileko beteranoen aurka jardungo du Usabalen. Josean Aldalur entrenatzailearen eta Lolo Encinas bigarren entrenatzailearen aginduetara ariko dira Gipuzkoako taldearen izenean Igor Ormazabal, Goar Artetxe, Javier Marin, Iban Perez, Fernando Garcia, Javier Hernandez, Jon Arozena, Luis Ibañez, Alex Hausser, Alvaro Coca eta Jose Mari Aramendi. Real Madrileko beteranoak ordezkatzuz, berriz, Wayne Brabender, Jose Miguel Antunez, Fernando Romay, Jose Biriukov, Vicente Paniagua, Luis Maria Prada, Juan Corbalan, Rafael Rullan, Pedro Rodriguez, Jose Luis Llorente, Jose Manuel Beiran, Toñin Llorente, Sergio Luyk, Enrique Villalobos, Juan Antonio Orenaga eta Lose Luis Indio Diaz ariko dira.

Atzo eguerdian egin zuten Tolosako udaletxean Gipuzkoako saskibaloari omenaldia egiteko ekitaldiaren aurkezpena. Bertan izan ziren besteak beste, Sport Mundi erakunde-ko ordezkari Aitor Etxaburu, Gipuzkoa Basket elkarte-ko ele-dun Miguel Santos, Gipuzkoako Saskibalo Federazio-ko ordezkari Mikel Lekaroz, Tolosako alkate Jokin Bildarratz eta La Caixako Gipuzkoako arduradun Dorleta Ugarte, eta guz-



Ezker-eskuin: Aitor Etxaburu, Jokin Bildarratz, Miguel Santos, Dorleta Ugarte, Mikel Lekaroz, Maritxu Astiazaran eta Jose Manuel Agirre, atzo, Tolosako udaletxeko batzar aretoan, Gipuzkoako saskibaloari omenaldia egiteko ekitaldia aurkezten hasi aurretik. I. ETXEBESTE

तिक emenaren garrantzia izan zuten aiputan. Sport Mundi irabaznahirik gabeko erakundearen zuzendari Aitor Etxaburuk zioen «kirolaren baloreen bidez, gizarte solidario-ago baten alde egin nahi» izan dutela ekimen honekin, eta, beste behin, garapen proiektu bati laguntza eman ahal izango diotela. Gipuzkoako saskibaloari egingo dioten omenaldi jaialdian bildutako dirua Tolosaldea Sahararekin elkarteari emango diote.

Sarrerak salgai dira honezkeroko Tolosako Antonio Maria Labaien kultur etxean eta La Caixa aurrezki kutxak Trianguloan duen egoitzan: helduek 3 euro ordaindu beharko dute, eta, haurrek, berriz, euro bat.

Saskibalo jardunaldi «ikusgarria» izango da antolatzaileen hitzetan, Gipuzkoako taldea osatzen dutenak «oraindik ere jokatzen ari diren jokalariek, edo, gehienera ere, iaz erretiratutakoak» direlako, eta Madriletik datozenak «garai batean

izen handiko jokalariek izandakoak» direlako. Maila handiko norgehiagoga izango da, beraz, datorren ostegunean ikusi ahal izango dena.

Antolatzaileek dei egin diete eskualdeko herritarrei hilaren

22an saskibalo jardunaldira joateko, «kirolarekin gozatuz, era berean, elkartasun proiektu garrantzitsu bat martxan jarri, eta helburu handi bat lortzea zilegi egingo dugulako guztion artean».

Dirua, Sahara laguntzeko

Tolosan saskibaloia sustatzeko gain, dirua jasotzea erabada datorren ostegun iluntzean Usabal kirol eta aisialdi gunean izango den saskibalo jardunaldiaren helburua. Izan ere, ekimen horretan biltzen den dirua Tolosaldea Sahararekin elkarteari emango diote antolatzaileek, «kirola gizarte integrazio-erabiltzen delako».

2004az geroztik Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako eskoletan birgaitze lanak egiteko proiektua dute abian Tolosaldea Sahararekin elkartekoek. Aaiun probintziako zazpi eskoletako azpiegiturak egokitzea eta haurren hez-

kuntza bermatzea lortu dute orain arte, eskualdeko hamalaka erakunde, elkarte eta talderen laguntzarekin 28.000 euro jasota.

Irailean bukatutzat eman zuten Aaiungo zazpi eskolak birgaitzeko proiektua, baina aurrerantzean sor litekeen arazoei irtenbidea eman ahal izateko («lanean jarraitu» behar dela adierazi dute Tolosaldea Sahararekin elkartekoek. Halaxe uste dute, behintzat, bertako kide Jose Manuel Agirrek eta Maritxu Astiazaranek. Eskerrak eman zizkieten saskibalo jardunaldiko antolatzaileei, «gure proiektuarekin gogoratzeagatik». ◀

LAZKAOTXIKI
BAT-BATEKO SORGINA



Xabier Amurizak abestuen

Xabier Amurizak
aukeratutako Lazkao Txikiren bertso eta irudi onenen bilduma.

abenduaren 16, 17 eta 18an **berria**rekin



+6,95€

Laguntzaileak:
Lazkaoko Udala

Euskaldunok behar dugun **berria**

*Omena
opa dizugu*



Orain edonork eduki dezake
Motorola V3 Black bat

29€
-ren
truke bakarrik

Teknologia, diseinu eta ezaugarri
harrigarriak, prezio irragarrian.
Besterik eska daiteke?
Eguberri on.

Eta, orain,
%50eko
deskontua duzu
deietan 2006ko
urtarriletik
ekainera arte.

Euskaltel

Eskatu informazioa **Saltokietan** edo 900 840 840 telefono-zenbakian.

LEITZA ▶ MUSIKA

Jeiki-ren Eguberrietako uzta berria

Bihar eskainiko du kontzertua, jentilen
garaiaz geroztikako Gabon-kantekin

JAIONE ASTIBIA

*Jentilen negumugatik kris-
tauen Eguberrietara.* Izenburu
horretxekin aurkeztuko du
bihar kontzertua Jeiki abesbat-
zak. Emanaldia, zinema areto-
an egingen du, 20:00etan hasita.

Leitzako abesbatza honek
oraingoan, urtabea ere hala-
koa izaki eta, Gabon-kantetz
osatutako kontzertuta eskaini-
ko duela iragarri du, egun eza-
gutzen ditugunak, «gutxienez,
gure herrian, Leitzan, azken 50
urteotan» abestu izan direnak,
taldekoek zehaztu dutenez. Ho-
rietxen sorta eskaintzea dute
helburu bat; jentilen garaitik
hasita gaur egun arterainoko
Eguberrien bilakaeraren «his-

toriatxoa kantua bidez la-
burbiltzea», bestea. Asmo ho-
rrekintxe aukeratu dituzte
errepertorioan eskainiko di-
tuzten «21 kantuak, guztiak ur-
teetan zehar gure herrian kan-
tatu izan ditugunak», azalduz.
Ez omen daude, ordea, denak;
aukeraketa egin dute, eta hu-
rrengo baterako utzi batez ere
bakarka kantatu ohi diren
abestiak.

Pontxito Irurutiak zuzentzen
duen Jeiki abesbatzak aurtzen
bigarren kontzertua eskainiko
du biharkoan; uztailean egin
zuen aurrekoa. 2004an egin
zuen berragerpena jendaurre-
an, urtetan ixilik egon ondoren.
Orditik prestaketa lanean fin,
entzuteko moduko saioa da.

ANOETA ▶ INGURUMENA

Egiazkoak baino, artifizialak «hobe»

Anoetako Udalak igorritako ohar baten bidez, Eguberrietan
«zuhaitz naturalak» erabili beharrean «pinu artifizialak erabiltze-
ko» deia egin die herritarrei, «ingurumenarekiko begirunea plaza-
ratu nahian», dioenez.

IRURA ▶

Bilerak ikastaroen parte- hartzailentzat

Irurako Udalak bi bilera anto-
latu ditu gaurko: 19:30ean
bata, sukaldaritza ikastaroko
parte-hartzailentzat; 20:15ean
bestea, ardo-dastaketa-
ketakoentzat. Bi bilera horien
helburua «ikastaroen egunak
eta ordutegiak zehaztea» dela
jakinarazi dute udal ordezkari-
ek. Oraindik, gainera, bi
ikastaroetan izena emateko
aukera badago, bilera haueta-
ra azaldu eta bertan izena
emanez.

ANOETA ▶

Ludotekan izena emateko azken eguna bihar da

Anoetako Udaletik oroitarazi
nahi izan dutenez, Gaboneta-
ko ludotekan izena emateko
azken eguna da biharkoa:
udaletxean, 09:00etatik 13:00-
etara egin daiteke. Haur Hez-
kuntzako 1. mailatik hasi eta
Lehen Hezkuntzako 6. maila
arteko umeentzat bideratuta-
koa delarik, ikastolan egingen
dute ludoteka, hil honetan
26etik 30era, eta ilbeltzean,
2tik 5era, 11:00etatik 13:00-
etara.



GIZARTEA ▶

Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egiteko aukera asteburu honetan ere

NBEra igortzeko «naziotasun eskubidearen errespetuaren esijentzia» sinatzeko agiriak izanen dira

JAIONE ASTIBIA

Tolosaldeko hainbat herritan asteburu honetan berriz ere EHNAren tramitazioa egiteko aukera izanen dute herritarrek, Bai Euskal Herriari egindako deialdiarekin bat eginez. Horretarako, gogora ekarri dute «3 argazki, padroi-agiria eta 15 euro» direla beharrezko. Erantsi dutenez, gainera, egun eta leku hauetan ere «lehendik EHNA egina izan edo eskaera egunean egina izan», hain zuzen ere, «euskal herritar naziotasuna izateko dugun eskubidea errespetatua izan dakigun, NBEra igortzeko eskaera-orriak sinatzeko» eskaera egin dute.

Ondoren aitaturako herrietan ez ezik, «Leaburun, Balaia-rrainen eta Bidegoianen ere», «asteburu honetan» egitekoa omen dute, baina «oraindik zehaztekoak» daude egunak eta orduak. Eta Alegian, Adunan eta baita Leaburun ere, «astez noiznahi» egin daiteke.

Bestalde, atzo jakinarazi zutenenez, Anoetan, tramitazioarekin batera ekitaldia ere egingen dute, 11:00etan, txalapartarie-

kin hasita. Ondoren, eguneko agiriaren irakurketaren ostean, trikitilarien soinuaz hamaitakoa egin eta bukaera

«EHNA duten lagun guztiekin» argazkia eginez emanen diote.

Tolosan, bestalde, Tolosa Bizirik-en batzarra egingen dute

tenore beretsuan: pleno-aretoan, 10:30ean hasita, «2006ko plangintza» izanen dute hizpide, 12:00ak aldera amaitzeko.

EHNA-REN TRAMITAZIOA ▶

Ondorengo herri hauetan, EHNAren tramitazioaz gain, Udalbiltzak NBEra igortzeko asmoa duen «euskal herritar naziotasuna izateko eskubidea onartua izan dakigun» eskaera-orriak sinatzeko aukera izanen da.

BIHAR, ABENDUAK 16

Ibarra. 19:00etatik
21:00etara, udaletxean.

ETZI, ABENDUAK 17

Anoeta. 11:00etatik
14:00etara, udaletxe atarian.
Aldi berean, ekitaldia ere egingen dute, argazkiarekin.

Gatzelu. 11:00etatik
13:00etara, udaletxean.

Irura. 10:00etatik
13:00etara, udaletxean.

Tolosa. 10:00etatik
13:00etara, udaletxean.

ETZIDAMU, ABENDUAK 18

Belauntza. 11:30etik
13:00etara, Kultur Etxean.

Elduain. 11:00etatik
14:00etara, udaletxean.

Ikaztegieta. 10:00etatik
13:00etara, udaletxean.

Orexa. 11:30etik 13:30era,
udaletxean.



VILLABONA ▶ DANTZA

Hiru hamarkada dantzan

Hasierako eta gaur egungo bi kidek
Oinkari dantza taldearen historia eta
oraingo egoera izan dute hizpide

IMANOL GARCIA

Villabonako Oinkari dantza taldeak 30 urte bete ditu aurten. Ekitaldi berezia egingo dute larunbatean, Leinua dantza taldearekin emanaldia eskainiz herriko Olaederra kiroldegian. Igandean, urteurreneko bazkaria egingo dute, taldean parte hartu duten guztiak bildu asmoz. Dantza taldearen historia ezagutzeko sorreran parte hartu zuen Hilario Ugaldearekin eta egun taldearen kide den Mainer Izagirrearekin aritu da Hrtza solasean.

Anekdotarekin jaino zen Oinkari. Lehenengo entsegua egiteko 1975eko azaroaren 20a aukeratu zuten, hau da, Franco diktadorea hil zen egun bera. «Guardia zibilak herrian gora eta behera zebiltzan gelditu gabe. Eta gure artean esan genuen badaezpada komeni zela egun horretan ezer ez egitea, eta hurrengo asterako utzi genuen».

22 mutil eta 25 neska inguru hasi ziren. Lagunei-eta deituz joan ziren osatzen taldea. 16 eta 18 urte inguruko gazteak bildu ziren taldearen sorreran. Tolosako Udaberri taldeetik hiru irakasle joan ziren eta fandangoa-eta ikasiz hasi ziren. Taldearen izena erabakitzeke bost-sei aukera jarri ziren, eta «Oinkari jartzea erabaki genuen».

Hasierako garaia ez ziren errazak izan, guardia zibilek jarraipena egiten baitzieten dantza taldean ibiltzeagatik. «Hasieran emanaldiak egitea ez zen erraza izan. Hainbeste urtetako beldurrak eragina izan zuen. Baina gero, pixkanaka hasi ginen inguruetatik herri txikiak-eta saioak egiten». Lehenengo emanaldia

1976ko Santio jaietan egin zuten. «Bordon dantza, Nafarroako dantzak, sardineras dantza... egin genituen. Arintasun falta, nerbioak janda denak, entseguetan ondo egiten genituen pausak plazan ahaztu... horrela joan zen», dio Ugaldek, eta gaineratu: «Baina jendea gustura, ezkutuan egiten genuenak emaitzak ematen zituelako».

Historian izan zen geldidunetik. 1983ko uholdeek materiala hondatu zieten eta, gainera, mutilek soldaduskara joan behar izan zuten, eta horrek eragin handi izan zuen. Gero, 1992an hartu zuten taldeak berri ere bizia.

Mutil falta

Dantza taldeetan betidanik arazo handienetakoa mutilen falta izan da. Bai hasieran eta bai gaur egun ere mutil dantzariak nondik lortuko izaten da kezka nabarmena. «Momentu bat iritsi zen 9 edo 10 mutil aritzen ginela. Neskak beti gehiago izaten ziren. Eta mutilak gozo-gozo bilduta mantentzen genituen», dio Udaldek. «Gaur egun 54 neska eta 6 edo 8 mutil gara, eta mutiletatik bazkuz adin txikiak. Azken hauek urrea bezala dira guretzako. Arazo handia da, zortzikote bat osatzeko ez baitago mutilik», azaltzen du Izagirrek.

Ugaldek gogoratzen du jendearen faltagatik ezin izaten zizutela nahi bezalako emanaldiak egin: «Momentu bat iritsi ezin ginela ondo antolatu. Mutilek ez genuen denborarik dantza dantzara atsedean izan zuten. Baina gero, pixkanaka hasi ginen inguruetatik herri txikiak-eta saioak egiten».

Tradizioa eta modernitatearen arteko eztabaida izan da



Oinkariren hasieran aritu ziren mutil dantzariak. OINKARI



Bigarren belaunaldiko dantzariak. OINKARI

beste gai garrantzitsu bat, bai Oinkarin eta bai beste edozein dantza taldeetan ere. «Lehen lana egiten genuen beste era batera. Jatorrian nola zen dantza pausoa eta horrela egin behar zela esaten zen», azaltzen du Ugaldek. «Eztabaidak izan ziren gure artean tradizioa mantendu edo berrikuntzak sartzearen inguruan».

Eztabaida horrek egun jarrizten du, Izagirrek azaltzen duenez: «Badaude taldeak oraindik tradizioa mantentzen dutenak, eta, nolabait, berriztatzaileen aurka daudenak. Oinkarin, orain sei-zazpi urte inguru taldea kili-kolo zegoen, batez ere mutil faltagatik. Momentu bat iritsi zen ere neskak aspertuta zeudela beti dantza berdina egiteaz. Orain

pare bat urte edo Edu Murua-mendiarazekin kontaktatu genuen eta koreografiak-eta egiten hasi ginen. Esan beharra dago, koreografia horiek oinarrian tradizioko pausok hartuta egiten ditugula». Berritasunen edo taldearen gainbeheraren arteko hautua izan zen. «Taldea piztu egin zen. Motibazio aldetik jendea gustura hasi zen entseguetara etortzen, lehen gertatzen ez zena».

Emanaldiak egiteko eta taldea antolatzeko era asko aldatu da taldearen sorreratik, kulturaren beste alor askotan bezala. Hasieran, herritik ateratzeko ahal zuten bezala egiten zuten, lagunen autoekin-eta. Dantzariak beraiek gehienetan josten zizuten arropak eta egi-

ten zizuten osagarriak. Emanaldien truke antolatzaleek eman ahal zutena jasotzen zuten. Egun autobusean mugitzen dira eta jostunak arduratzen dira arropaz. Emanaldiei dagokienez, saioa prestatuta daukate argi eta soinua mutaiarekin, maila oneko musikoak zuzenean... DVDa bidaltzen diete interesa duten udalei edo bestelako antolatzaleei eta aurrekontua onartuz gero emanaldia egiten dute. Aurtengo Santio festetan estreinatutako *Oroituz*, esaterako, Zarautz eta Zeanurin eman dute.

Urteurreneko ekitaldiak

Asteburu honetan izango dira 30. urteurreneko ekitaldiak. Etzi Oinkarik eta Leinua dantza taldeak emanaldia eskainiko dute Olaederra kiroldegian, 22:30ean. Igandean, berriz, Astetasuko Sarasola sagardotegian Oinkari dantza taldearen urteurreneko bazkaria egingo dute. Bertan, bazkariak gain, erromeri ederra antolatu dute, sorpresak ere izango direlarik. Bazkaria taldeko dantzari, musikari, laguntzaile eta gurasoei zuzendurik dago. Parte hartu nahi dutenek 660 13 93 80 telefonora deitu behar dute izena emateko.

urteurrena ▶



Txuma Urdanpilleta Aranburu

I. urteurrena

Nire irria, indarra, usaina,
kemena, laguntasuna,
askatasun irrika...
A zer zorrea gurea
zurekin bizi ahal izana!

Beti bihotzean eramango zaitugu.

Itziar, Saioa eta Oskitz

ZARAUTZ, 2005eko abenduaren 15a



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

ASTEASU ▶

Azken unean atzeratu dute Txapartegiren deklarazioa

ERREDAKZIOA

Nekane Txapartegi astesuarak herenegun goizean deklaratu behar zuen egindako tortura salaketan ahozko bistan. Horretarako, defentsak eskatuta zuen 18/98 auziko goizeko saioan Txapartegi ez egotea. Baina azken unean, astelehen arratsaldean, 18/98 auziko epaimahaia ez zion utzi epaiketa horretan ez izatea eta, beraz, beste epaitegian egin beharreko deklarazioa burutzea. Txapartegiren hitzetan, «jasandako torturen salaketa isilarazi nahi dutenaren susmoa hartzen diogu agindu honi».

Gauzak horrela, 18/98 auziko epaimahaia urtarril inguruan emango dio asteasuarrari deklarazioa egiteko data, baina auzi horretako egunetarik kanpo, hau da, ostegun edo ostiral batean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.
- Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarralde. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

PILOTA ▶

Amaitzean da Kluben Arteko Txapelketa

Eskualdeko pilotari ugari iritsi dira finaletara; erabakitze daude hainbat final oraindik

I. TERRADILLOS

Irailaren erdialdean ekin zioten Gipuzkoako Kluben Arteko Pilota Txapelketari, eta azken txanpara iritsiak dira. Bertan ari dira parte hartzen Bidegoiango Aurrera-Saiaz taldeko pilotariak, eta maila altua erakutsi dute; horren seinale da maila desberdinetan hainbat final eta finalurreko jokatu dituztela asteburu honetan eta hurrengoan.

Bihar jokatu dute lehenengo finala; lehenengo mailako seniorrak izango dira, Amezketan, 18:00etan hasita ariko direnak. Partida horretan, Aurrera-Saiazeko Mikel Belloso eta Iker Huarte lehiatuko dira Goierrikoen aurka. Final horretaz gain, bihar Zegaman, 20:00etan, 3. mailako 2 seniorren arteko finalurrekoak jokatu dituzte Aurrera-Saiaz 2ko Igor Aranzabek eta Ioseba Senperenak Arrasateko taldeko pilotarien aurka.



Aritz Mugika, Unai Aspe eta Ruben Zapirain Aurrera-Saiaz taldekoak. NEREA URBIZU



Jabi Oteiza, Iker Huarte, Mikel Belloso eta Mikel Olaechea Aurrera-Saiazeko pilotariak. NEREA URBIZU

Etzi, lehenengo mailako jubenilen banakako finala jokatu du Aurrera-Saiazeko Aritz Mujikak Anaitasuna taldearen aurka Errenterian, 16:30ean, eta Hernanin, 11:00etan, Aurrera-Saiaz 1eko Unai Aspe eta Ruben Zapirainek Aurrera-Saiaz 2ko Jon Orbegozoren eta

Iker Huarteren aurka jokatu dute 2. mailako seniorren finala. Halaber, Xabier Telletxeak eta Koldo Galarragak Intxaurrekoen aurka jokatu dute finalurreko Intxaurrekoen 17:00etan.

Bestalde, kadeteek ere Ligako partida izango dute bihar;

Mikel Lasak eta Iñigo Lizarribarrek jokatu dute Antiguon, 20:00etan, Antiguako 1 taldearen aurka.

Bihar eta etzi hainbat final jokatu dituzte, beraz, eta datorren astean izango da asteburu honetan finalurrekoak dute-n txanda.

IBARRA ▶ KIROLA

Kirolariak eta kirol elkarteak omenduko ditu gaur Udalak

20:00etan hasiko dira Kirolarien Eguneko ekitaldiak udaletxean; aurrera begira, Kirol Astea antolatu nahi du gazteen kirolzaletasuna areagotzeko helburuarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udalak Kirolarien Eguna antolatu du gaur ibartarrek diren kirolariek eta kirol elkarteek egiten duten lana eskertze aldera.

Ekitaldia 20:00etan hasiko da Ibarrako udaletxeako pleno aretoan. Chelo Rome Ibarrako alkateak aurkezpena egingo du, eta ondoren sarien banaketari ekingo diote. Horren ostean, bertaratzen diren guztiak lunch-a hartzera gonbidatu dituzte.

Ibarrako alkateak azaldu duenez, «asko dira gure herrian kirolelan maila handia erakutsi dutenak, eta horiek egiten duten lana azpimarratzeko da; horregatik antolatu dugu haiei zuzenduriko egun hau». Halaber, aurreko egun bat antolatu badute ere, datozen

KIROLARIEN EGUNA ▶

OMENDUAK

- ▶ Lorenzo Juarros. Futbola.
- ▶ Garikoitz Uranga. Futbola.
- ▶ Mikel Saizar. Futbola.
- ▶ Anjel Apeztebea. Futbola.
- ▶ Zigor Aranalde. Futbola.
- ▶ Xabier Fernandez. Bela.
- ▶ Jon Goikoetxea. Mendia.
- ▶ Lauburu K.E. Areto Futbola.
- ▶ Lauburu jubenilak. Areto Futbola.
- ▶ Unai Otaño. Aizkolaria.
- ▶ Jesus Mari Mujika. Aizkolaria.

- ▶ Gorka Molina. Urpekoak.
- ▶ Ambrosio Ibarzabal. Arraunketa.
- ▶ Nesken arraunketa.
- ▶ Belabieta K.E. Erritmikoa. Gimnastika.
- ▶ Amaia Jauregi. Atletismoa.
- ▶ Asier Landa. Atletismoa.
- ▶ Leire Agirrezabala. Atletismoa.
- ▶ Xabier San Juan. Pilota.
- ▶ Xabier Pagola. Judoa.
- ▶ Pilar Esnaola. Arte martzialak.

urteotan kirolaren inguruko aste oso bat antolatzea dutela buruan gehitu du. Izan ere, «era horretara, adituek eskainitako hitzaldiak emateko aukera izango dugu, eta baita beste hainbat ekitaldi ere; gure

asmoa gaztetxoaren artean kirolzaletasuna areagotzea izango da», adierazi du Chelo Romeok.

Gaurko ekitaldia kirol mota desberdinetako jendearekin osatuko da; baina hori bai, guz-

tiak ere antzekotasun bera izango dute: egiten duten kirolelan goi mailan eta handien aurka ari direla edo aritu direla, alegia.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. «Azkenaldian ugariak dira Tolosan, batez ere larunbat gauetan, liskarrak: jipoiak, suntsiketak, mehatxuak... Zer dela-eta gertatzen dira horrelakoak? Zer egin daiteke egoera horri konponbidea emateko?». Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian, eztabaida atalean, eta eman zure iritzia gai honen inguruan. ▶



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abenduaren 15a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena 9

hotzera 6

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: bai / bihar: bai



Pagomari:



gaur: bai / bihar: bai



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Orientazio ikastaroa GPSrekin (bigarren zatia). Jose Miguel Alonso EHUko irakasle eta Durangoko Tabira mendizale elkarteak kidearekin. 19:00etan, udalebteko bideo gelan. Mendi Astearen baitan.
Tolosa. Arau Subsidiarioen Berrikuspen Prozesuko II Herritarren Parte-Hartzeko Jardunaldiak: bihar, 19:30ean, Errotan.

HITZALDIAK

Zizurkil. *Estatus politikoa orain!* Jon Etxandia preso ohiarekin. 20:00etan, Iriarte kultur etxean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Tolosa. Anjel Navasen *Nomadas del hielo*. 19:30ean, Bonberenean.

ZINE-KLUBA

Tolosa. *The mother*. 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea, 112.
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. *Gora Euscadi* Chistulari, Matraiki Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



50 haur inguruk jarraitu zuten emanaldia Errotan. GALTZAUNDI



Nerea Herrarte ipuin kontalaria, saioaren une batean. GALTZAUNDI

Ipuinen bidez ere ikasten

TOLOSA ▶ Nerea Herrarte ipuin kontalariaren saioa, Errotan



Arrazakeriaren kontrako ipuinak, eta beldurrak eta haserreak nola sortzen diren azaldu zuen. GALTZAUNDI

ERREDAKZIOA

Bareak eta jakinminak bat egin zuten Errota Haur Liburutegian, Nerea Herrarte ipuin kontalariak eskainitako saioan. 5 eta 8 urte bitarteko 50 haurretik gora elkartu ziren Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosako Udalak elkarlanean antolatutako emanaldian. Ipuin hezitzaileak kontatu zituen Herrartek: haurren beldurrak eta haserreak nola sortzen diren azaltzeaz gain, arrazakeriaren kontrako ipuinak ere kontatu zituen. «Saioa oso arrakastatsua izan zen, eta haurrak oso pozik geratu ziren kontalariari esker», azaldu dute Galtzaundikoek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iñigo Arruabarrena Karrera.
Gaur 4 urte. Zorionak guraso eta familiarren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

hitza txokoa lagunen

▶ HITZAko harpidedunen artean zozketatutako

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO FINALERAKO bi sarreren irabazlea.

IZASKUN DORRONSORO GARZIARENA (BERASTEGI)

